

BALIO PROPOSAMENA

Beraz, mundu osoan zehar presente dagoen arazo larri hau oinarritzat hartuz, egoera hau samurtzea helburu duen proiektua aurkeztera gatoz. Beti ere, ideia hau jada martxan dagoen ekimen baten hobekuntza bat dela argi utziz. Zehazki, 2011n Napolesen (Italia) jaiotako, “Caffè sospeso” egitasmoa. Honek, kafetegi hauetako bezeroek kontsumituko duten kafe kopurua baino gehiago ordaintzean datza. Gero, baliabide urridun herritarrek, hots, kafea ordaintzeko baliabide ekonomikorik ez dutenek, kafe batez gozatzeko aukera izan dezaten. Ideia hau hasieratik iruditu zitzaigun erakargarria; izan ere, negu hotzean kafetegi bateko lasaitasunean kafe bero bat hartu ahal izateak, arazoa konponduko ez duen arren, egoera erraztu eta biguntzen du.



Hari horretatik tiraka, proiektu italiar hau hobetzea posible dela bururatu zitzaigun; inspirazio gisa erabilitako ideia honetatik abiatuz, honako proposamen honekin gatoz: eskaintza hau kafearekin soilik egin beharrean, produktuen eskaintza zabaltzea. Esate baterako, bezeroek janaria ere ordainduta utzi ahal izatea; edota arropak, liburuak, etxetresnak... gurekin bat egitera animatzen diren denda edo zerbitzuen arabera. Horrela, jende honi arratsalde bateko plazer txiki bat soilik eskaini beharrean, egunerokotasunean bizitza duin bat izatera hurbiltzen lagunduko diegu.